




V. Eugeniales
Konzertuak
Duru?

1996ko Martxoak 8



Mikel Laboa, munduaren sorreran izen berriak jartzan

Argazkia: Christiane VON ENZBERG

AGIAN, BAZUEK, MIKELEZ MINTZATZEKO HAU EZ DELA TOKIRIK EGOKIENA PENTSATUKO DUTE. HORRETARAKO «BAT, BI, HIRU» HOR DAGOELA ESANGO DUTE. Baina oraingo honetan ez dugu zehatz-mehatz musikari buruz hitz egingo, eta Antonin Artauden inguruan pasa den astean idatzitakoarekin zerikusi handia du. Aste honetan Tristan Tzarari buruz hitzegin behar genuen, baina joan zen larunbatean Donostian Mikel Laboaren kontzertua izan zen eta bertan entzun eta ikusi ahal izan genuena luzaz gordeko dugu gogoan.

Aurreko astean Artaudi buruz hitz egin genuen. Gaur, berriz, goraxeago Mikel Laboarekin zerikusirik baduela aipatu dugu. Eta horrela da hein handian. Laboa ez da, inolaz ere, ezezaguna eta ezin dugu esan Artaudi buruz esaten genuena, hots kantari madarikatua dela. Mikel bere herrian eta herritik kanpo gizon miretsiada, Mikelek entzulego zabala lortu du, zabala zentzu guztietan. Beno, hari-ara bueltatuz, Artaudek hitzen mugekin apurtu nahi zuen, Artaudek, hizkuntza, ezarritako zapaketaren oinarri bat zela pentsatzen zuen, eta hizkuntz eraldaketan pasa zuen bere bizitza. Mikel Laboak bere lan ezberdinetan antzeko asmoak azalduko dizkigu. Hau da, bere lanetan zerbaitek harritzen gaitu, bere abes-ietek badute zerbaitek norberaren baitan itaun egiten duena, bada horietan zerbaite bitxia galderak egitera behartzen gaituena.

«... Arteak formak iluntzen ditu, pertzepzioa zailago eginez eta hau luzatuz» (V. Sklovski, «Artea prozedura bezala»).

Gauzak beti modu berean ulertzen ohituta gaude. Hizkuntzaren hitzak eta esaldiak betiko erantzun edo irakurri behar ditugu, bestela sinesgaitz egingo baitzaizkigu. Hitzek zein irudiek zein ikur guztiek beren modu zuzena dute, ezarritako modua, ulergarria zentzuzko izan ahal izateko. Gauzek bere neurri eta antolaketara dute. Hortik aldentzea arriskutsua da, «erotu al zarete?».

Baina hizkuntzekin jolasean hasten garenean, zer gertatzen da?, ohikoa dena kolokan jartzen dugunean zer gertatzen da?, hizkuntzek dituzten arau estuek eztanda egiten dutenean zer gertatzen da? Horixe da J.A Artek Mikelen disko batean azaltzen diguna:

«... Hitza, bera sortu duen mundua bezain

nahastua eta kutsatua heldu zaigu, bere indarra eta funtsa galdurik. Ikasi dugu hitza itxurdatzen eta beraren bidez gezurra egia bezala esaten. Hainbatetan erabili dugu joko hori, non azkenean geronek ere ez dakigun zer den egia, zer gezurra. Orroa eta maruarekin ez da hori gertatzen; ez da hain erraz hasperena edo garraisia disimulatzen eta zurikeriaz apainduta ematen. Xede horrekin hurbildu da Mikel hitzaren harrobira, hotsaren eremura, gaurko behar dituen harri hutsen bila. Hotsaren eremuan ez dago heldulekurik; hotsak, arrazoizko bide markatuetatik kanpora deitzen gaitu eta umezurtz uzten basan...».

Mikelek gu itauntzen gaitu, bere burua itaunduz, bere herriaren kultura itauntzen duenean beste kulturekin solasean. Galdera hauetan hitzak, kantak, mugimenduak, argia, orroak bere lan tresnak ditu. Beraiekin jolasean zentzuen munduaren ate estuak irekiko dizkigu. Orroak eta hasperenak esanahiak izutuko dituzte. Ahotsarekin egindako jolas fonetikoek ezarritakoa dinamitatuko dute ironiak lagunduta.

«Hiru ume eskutik helduta zaldi baten aurrean ikusi nituen, bi hitz baino ez pozez gainezka kantari, «zaldi bat, zaldi bat!», errepi- katzen zuten heinean hitza bera sortzen ari ziren, beraiekan kanta sortzailea zen».

Unamunok hauxe kontatzen zuen, nola ume horiek jolasaren errepikapenaren poderioz «zaldi» hitza esanahi ezberdinetara irekitzen zuten. Barojaren ipuin batean, emakume batek «Ai ene» hitzak esanahi ezberdinekin erabiltzen ditu, hau da, mina zein poza adierazteko erabiltzen du. Egoera batzuetan keinuak (hitzak, irudiak, mugimenduak...) askatu egiten dira ezarritako esanahiak lehortaraziz.

Hitzen errepikapenak, hitzen doinuekin jolas egiteak, hasperenak eta orroak, txalapartak, pianoa, antzerkiak, gitarrak, abiadura motelean grabatutako bideo zoragarriak, hauek guztiek ederki azaldu zituzten Victoria Eugenia antzokian Mikel Laboaren proiektua zein sendoa den, sendoa eta zabala, zabala eta erakargarria, erakargarria eta sakona, sakona eta atsegina...

Argiak piztuta zeudenik ez genuen jakin nahi izan, gehiago nahi genuen bertan bildutako gehienok. Gehienok diot, debaldeko sarrera zeukaten politikero batzuek txalo ez joteaz gain bukatu aurretik alde egin baitzuten, jakinik kanpoan jende mordoa kontzertua ezin ikusirik gelditu zela. Sekulaberdiako kantaria, ortzemugara begira kantatzen duen hori, agur esan eta bazihoan, bere lagunek inguraturatua, guberriz Mikel entzuteko hurrengo parada noiz izango genuen pentsatzen. ■